

02
03

PARTE HARTU

- VIII. ARGAZKI LEHIAKETA
- IPUIN ETA KONTAKIZUN HIPERLABURRAREN XV. LEHIAKETA.
- IKASTAROA: GARAPENERAKO HEZKUNTZA.
- EZKERRALDEKO EMAKUMEEN ELKARTEEN V. TOPAKETA.
- GIZA ESKUBIDEEN IV MUNDUKO FOROA, NANTESEN.

POSITIBOKI

04
07

- SORMEN – LANTEGIA
- JARDUNALDIAK SANTURTZIN:
GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK BERDINTASUNEAN.
- EMAKUNDEKO BERDINTASUNAREN ALDEKO FOROA 2010.
- BIZKAIKO EMAKUMEEN ELKARTEEN VIII. AZOKA.
- NAZIOARTEKO KONGRESUA: "ANIZTASUNAREN ISLA POLITIKOA".

HOMOFIARIEN KONTRAKO EGUNA
BIZKAIA SEXU – ANIZTASUNAREN ALDE



08
09

EKIMENAK

- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN HITZARMENAK ETA DIRU-LAGUNTZAK BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA KULTUR ARTEKOTASUN ARLOAN DIHARDUTEN ERAKUNDEEKIN.

10
11

INTERESATZEN ZAIZU

- Elkarrizketa MARIA PAZOSI.
- Susana Koskak zuzendutako "VINDICACIÓN" DOKUMENTALA.
- Aitzol Aramaio zuzendutako "AITAK" FILM LABURRA.
- BULETIN DIGITALAK:
 - INTERED Web: Elkartrukea eta Elkartasuna.
 - Web: Berdintasunean Heziz.

ARGITALPENA ETA HELBIDEA

Kaia Foru Aldundia
Ahaldu Nagusiaren Kabinetea
Berdintasunerako eta Herritarren
Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusia

Alameda Mazarredo Kalea, 63. 3. Solairua
48009 Bilbo
Tel.: 944 068 000

KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA
Infópolis 2000, S. L.

Artikulu berregintza osoa edo zatikakoa baimentzen da, hain jatorria aipatzen den gutzian.
Erakunde argitaratzaileak ez du nahitaz, artikuluen eta lankidegoen barnean sartzen diren iritziekin bat egin beharrik.

© Berdintasuna, 2010. Eskubide guztiak gordeta.

editoriala



Maiatzean hainbat jarduera, ospakizun eta berrikuntza izan ditugu, eta zuekin partekatu nahi ditugu ale honetan. Azpimarragarria da Bizkaiko Emakumeen Elkarte VIII. Azoka modu egokian gartzeko egindako lana. Beste urte betez, elkarte gogo bizi eta dedikazioari esker, esperientziei buruz hausnartzeko, esperientziak partekatzeko, osasunerako jolas-jarduerak egiteko eta etorkizunerako apustuak egiteko aukera izan dugu. Oraingoan zaintzari buruzkoa izan da azoka, giza-garrantzi eta garrantzi ekonomiko hain handia duen gaiari buruzkoa. Agerian jarri zen erakundeek, gizarteak eta gizarte-eragileek esku-hartzeko duten beharra, normalean kontuan hartzen ez diren ikuspegiak. Era berean, hain beharrezkoa den sakontzea egiteko, hainbat pertsona, profesional eta boluntarioen ezagutza eta ideietatik ikasi ahal izan dugu.

Herritarren eskubideekin eta bereizkeriarik ezarekin dugun konpromisoak, beste proiektu batzuen artean, jendaurreko zabalbundeari dagokion arloan Homofobiaren aurkako eguna egitera eraman gaitu. Halaber, diru-laguntza akordioak egin dira elkarteek berdintasuna, lankidetzeta eta kulturartekotasunaren alde lan egiteko aukera izan dezaten. Ildo horretan daude intereseko ekitaldi ugarietako batzuk, beste erakunde eta elkarte batzuen gidaritzapean. Ekitaldi horiei esker, ezagutza, sentsibilizazioa eta parte-hartzea hobetzen dira.

Jose Luis Bilbao
Bizkaiko Ahaldu Nagusia

ber
dinta
suna

Parte hartu eta sartu.

Zure agenda kontsultatu



VIII. Argazki Lehiaketa

"Berdintasunerantz fokatuz"

Ekainak 14-18. Estella – Lizarra Udalak antolatutakoa.



Estella-Lizarrako Udalaren berdintasun eta Emakume Batzordeak, sexuen arteko aukera-berdintasunean sentsibilizatzeko helburua betetz, "Berdintasunerantz fokatuz" Argazki Lehiaketa antolatzen du. Aurtengo honetan zazpigarren edizioa iritsi da.

Lehiaketa hau (argazkien aurkezpena ekainaren 14 eta 18 bitartean egin ahal izango da Estella-Lizarrako Udalaren Emakume Arloan), 16 urteik gorako pertsona ororen partaidetzara zabalik dago, betiere bere obretan dela diskriminazioa, dela emakume eta gizonen berdintasuna dela erantzukidetasuna erakusten duten egunerokotasuneko egoerak islatuz gero.

Epaimahaiak, bere ebazpena ekainaren 22an ezagutaraziko duenak, hiru sari emango dizkie argazkirik onenei. Hauetan lehenengo saria 450 euro izango da, 300 euro bigarrena eta 200 euro hirugarrena.



Harremana:
Postako helbidea:
Emakume Arloa
Estella-Lizarrako Udala
Inmaculada pasealekua, 1
31200 Estella-Lizarra
Nafarroa
Web orria:
www.concursosdefotografia.com

Ipuin eta kontakizun hiperlaburraren xv. lehiaketa

"Denok ezberdinak gara"

Uztailak 5 harte.
Injuvek antolatutakoa.



Eskubide Zibilen Gazte Biltzarra (AJDC), Eskubide Zibilen Fundazioa eta Gazteen Erakundea (INJUVE) erakundeek Ipuin eta kontakizun hiperlaburraren "Denok ezberdinak gara" VII. lehiaketa deitu dute.

Uztailaren 5a arte 31 urteik beherako egileek ipuin edo kontakizun laburreko bere ekoizpenak, jarrera arrazista edo intoleranteen gainekoak, aurkeztu ahal izango dituzte. Ekoizpenok aurkezteko Madrilen

dagoen Eskubide Zibilen Gazte Biltzarre-
ra (AJDC) joan behar dute edo posta ziur-
tatua bidal daiteke helbide berberera edo
laburpenaren oinean adierazitako posta
elektronikora.

Testuek, modalitate guztietan, hurrengo
oinarri hauek bete beharko dituzte:

- Ipuina:

hiru eta hamar folio bitarteko
luzera, gaztelaniaz, 12 letrako
neurriaz eta alde bakarreko
espazio bikoitzean eginda.

- Kontakizun hiperlaburra:

gehienez 25 lerroko luzera,
gaztelaniaz, 12 letrako neur-
riaz eta alde bakarreko espazio
bikoitzean.

Ipuinaren modalitatean, epaimahaiak
1.500 euroko lehenengo saria emango du,
900 euroko bigarren saria eta 600 euroko
hirugarren bat. Kontakizun hiperlaburrean,
berriaz, beste hiru sari aurreikusita daude:
lehenengo saria 1.000 eurokoa da, big-
arrena 600 eurokoa eta hirugarrena 300
eurokoa. Era berean, irabazten duten sei
lanek diploma egokia jasoko dute.

Horretaz gainera, kalitateko bestelako
ekarpen batzuk aipamena jasotzeko duin
eta diploma merezi dutenak direla joko da,
hauen artean latinoamerikarra edo haur-
rena (gehienez 12 urte).



Harremana:
Postako helbidea:
Eskubide Zibilen Gazte
Biltzarra (AJDC)
Sagasta, 24-2. Ezk..
28004 Madril

Tfno.a:
917 818 510
Posta elektronikoa:
curso@civilia.es

"Parte Hartu" hartzen du:

Berdintasun eta hiritar – esku-
bideko zuzendaritzaren **Berriak**:
Topaketak, dirulaguntzak, deialdiak,

ekitaldiak.

Horrez gain, beste erakundetako
ikastaroak, ekitaldiak, topaketak eta

dirulaguntzak ere.

“Garapenerako hezkuntza:

**Erantzukizun
soziala irakaskuntzan”
Ikastaroa**

UPV-EHU antolatutakoa.



Bilbao Arte eta Kultura 2010 udako ikastaroen esparruaren barruan, Universidad Pública del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) “Garapenerako hezkuntza: Erantzukizun soziala irakaskuntzan” mintegia proposatzen du. Berau Bilboko alde zaharreko BBK Etxean emango dute ekainaren 12 eta 13an, 9.00etatik 14.00ak arteko ordutegian.

Bi egunetan zehar, adituen eskutik, ikasleek Garapenerako Hezkuntzaren (GH) gaineko ezagutzak zabalduko dituzte edo arlo honetan hasiko dira, jarduteko hainbat ildo osagarrietatik begiratuta, hala nola aldaketa sozialean duen eginkizuna aztertzea, nazioarteko lankidetzaz, goi mailako hezkuntzako erakundeak, generoa edo praktika onak.

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek (bere prezioa 35 eurokoa da ikasleentzat eta langabetuentzat eta 70 eurokoa gainerakoentzat) honetan matrikula egin dezakete maiatzaren 3tik ekainaren 8ra arte.

Harremana:
<http://www.bak.ehu.es>

**Ezkerraldeko, Meatze
aldeko eta Enkarterrietako
emakumeen elkarten V.
topaketa**

Ekainak 5.
Ortuellako Udalak koordinatutakoa.

Ortuellako Udalak koordinaturik, ekainaren 5ean (larunbata) aipatutako herri honetan Ezkerralde, Meatze Alde eta Enkarterrietako Emakume Elkarten V. Topaketa egingo da, “aniztasunean baturik” lelopean. Bertan, aipatutako elkarteekin batera, udalek eta genero politikez arduratzen diren langile tekniko eta politikoek ordezkatutako taldeek ere parte hartuko dute.

Jarduerak era askotakoak izango dira, hala nola adin guztietarako aldi bereko tailerrak, aretoko dantzen, euskal dantzen, gimnasia erritmikoaren edo txalapartaren erakustaldiak edo baita Topaketari amaiera jarriko dion antzezlanak ere. Horretaz gainera, udalerrian barrean tren turistikoa egindako gidatutako ibilbidea ere eskainiko da.

Emakumeen elkarten mugimenduak udalerrira guztietan egindako lana erakustea; Ortuella, tailer eta antzeko jardueren bitartez, topaketa eta esperientzien trukeko toki bihurtzea; eta 2010. urtean zehar garatutako lana batera egitea topaketa honen helburuak dira.



Harremana:
<http://www.ortuella.biz>

**Giza eskubideen IV.
Foroa Munduko
Ekainak 28 - Uztailak 1.
NANTES (Frantzia).**



Ekainaren 28tik uztailaren 1era Nantesko Biltzarren Nazioarteko Jauregiak (Métropole) Giza eskubideen munduko IV. foroa hartuko du. Foro hau elikadura, ekonomia, gizarte, politika eta moralaren krisiak giza eskubideetan izandako inpaktuari eta hauek konponbideen bilaketan betetzen duten eginkizunari buruzkoa izango da.

Gogoeta, eztabaida, praktika onen sustapenerako espazio bat eratzeko helburuz sortu da; eta, azken batean, funtsezko eskubideen aurrerapena lagundu nahi du.

Jardunaldiak egituratuta dauden osoko bilkura, mahai inguru, hitzaldi eta solasaldietako parte-hartzaile gisa, laugarren edizio honetan ere esparru publiko, zibil, espezializatu eta ekonomikoko ordezkaritza ugari IV. Foroaren gonbidapena onartu dute; hau da, toki, nazio, eskualde eta nazioarteko esparruetako ordezkaritza instituzionalek, gobernu arteko erakundeek, giza eskubideen aldeko batzorde eta erakunde nazionalak, gizarte zibilak, gobernu kanpoko erakundeek, elkarteek, sindikatuek, komunikabideek; espezialistek, juristek, irakasleek, ikerketako langileek, enpresariak...

“Krisiaren aurrean, giza eskubideak?”

Hiru ardatz nagusik topaketan burutuko diren saiok egituratuko dituzte: adierazpen askatasuna; banakoaren nortasuna, aniztasuna eta gutxiengoekiko begirunea; eta enpleguaren lehentasuna krisi ekonomikoaren aurreko formula gisa.

- **Identitateak, gutxiengoak: aniztasunean bizi eta jardutea**
- **Adierazpen eta iritzi askatasunak: etengabeko borroka**
- **Lana: eskubidea defendatu eta indartzea krisia egonik ere**
- **Lurretik elikagaira / Baloreetatik arauetara solasaldia LASCAUX ikerketa programa europarrarekin lankidetzan**

**4º FORO MUNDIAL DE
DERECHOS HUMANOS**

Frente a la crisis, ¿los derechos humanos?

Harremana:
<http://www.spidh.org>

NANTES - FRANCIA 28 DE JUNIO - 1º DE JULIO 2010
PALACIO INTERNACIONAL DE CONGRESOS NANTES METROPOL
Desde los principios universales hasta la acción local

SORMEN-LANTEGIA

maiatzak 6.
Munduko Txokoa.(Alboan)
antolatutakoa.



Galdetu diozu inoiz zure buruari inoiz ... zer eragin duen munduan egunero naturaltasunez egiten dugunak? zer eragin duen mikrouhina erabiltzeak edo lanera autoz joateak?

Galdera horiekin piztu zen sormenari buruzko lantegiaren garra.. Munduko txokoa taldeak maiatzaren 6ko arratsaldean zuen helburua elkar ezagutzen ez zuten pertsona batzuk bildu eta gizartea mugiarazteko ekintza bat sortzeko batzea zen. Ekintza hura ekainaren 4an gauzatuko da, arratsaldean. Gaia txikiagotzea, gutxitzea zen, kontsumoa murriztea, tresnen berrerabiltzea eta materialak birziklatzea areagotzea zor ekologikoa birkokatzeke.

Berataratu ziren pertsonen ikuspegi ezberdinak eta ausaz hartutako hainbat hitz gai nagusitzat hartu eta balaiatu zituzten sortu ziren dinamika eta ideiak garatzeko. "Hartxintzar", "bero", "horiztatzea", "akusazio" edo "hilobi" bezalako hitzek hainbat ekintza eragin zituzten, hala nola, hartxintzarrekin marrazki erraldoia egitea, munduko liderrak herrialde pobretuen arazoaren kontra futbolearen lehiaztea, gizarte-alarmino ekintza "SOS horiztatzen ari gara!!" lelopean, kalko-paperak sortzea oinezkoen konpromisoak partekatzeke, edo hileta egitea gaurko gizartearen balio kontsumistak ehorzteko, hauts horietatik ideien unibertso berria sortuko bada.

Dinamika sortzaile hori jendeak bere aztarna ekologikoari buruz gogoeta egin dezan zuzendu zen. Eta zuk, badakizu? Aurkitu hemen:

Aurkitu ezazu:

www.myfootprint.org



SANTURTZIN GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK BERDINTASUNEAN. JARDUNALDIAK

Santurtziko Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasunaren Arloak antolatutako maiatzaren 14 eta 15ean. Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunaren alde 2010eko martxoaren hasieran ekindako lana lehenengo fasean amaitu dute.

Santurtzi Berdingunea – Berdintasuna eraikiz proposamen aitzindaria da Euskadin eta, bereziki, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren borrokan, baita indarkeria matxistaren kontra borrokan ere gizonezkoak sartzeko da.

Esku-hartzearen prozesua Emakunderen Gizonduz ekimenarekin lankidetzan egin da. Udalerriko gizarte- eta hezkuntza-sektorekoekin hitzaldi eta tailerren bidez lan berezia eginez hasi zen. Guztira 309 pertsonak parte hartu du, 121 gizonezko eta 188 emakumezko. Guztira 21 prestakuntza-tailerretan izan dira.

Proposamena amaitzeko "Gizonezkoak eta Emakumezkoak Berdintasunean" Jardunaldiak egin dira eta horietan tokiko esperientziak elkartzen, eztabaidatzen eta alderatzen saiatu dira. Unibertsitatearen mundutik eta Euskadiko eta Estatuko beste zonetak, hala nola Kataluniako eta Andaluziako gizarte-mugimenduetatik etorritako adituek parte hartu dute.

Maria Silvestre Emakunderen zuzendariak eta Ricardo Ituarte Santurtziko alkateak inaurratu zituzten. Berdintasunaren alde eta Indarkeria matxistaren kontra Euskal Gizonezkoen Gutuna irakurri zuten Jose Antonio Expósito Itxasoko Ama Arraun Taldeko lehendakari eta irakasleak eta Kike Gutierrez Ordorika idazleak.

Mahai-ingurua izan zen Antonio García Malagako Plataforma pro Permisos de Paternidad Iguales e Intransferibles (PIINA) erakundeko ordezkariarekin eta Bernat Escudero Ahige-Catalunyako Homes Igualitaris kidearekin. Moderatzailea Xabier Lapitz kazetaria izan zen. Gaia: "Gizonezkoak erantzukizun bateratu eta zaintzaren aurrean".

Larunbatean, 15ean, Mila Amurrio UPV/EHuko irakasleak "Gazteen artean indarkeriaren pertzepzioari" buruz hitz egin zuten; Maribel Pizarro gizarte-psiologoak "Arabako Ezberdin Hezkuntza Zentro ez-sexista" aurkeztu zuen eta Iñaki Kasaren de la Iglesia Santurtziko Gizon Ekimena taldekoak "Berdintasunaren aldeko mugimenduetatik indarkeria matxistaren aurrean erantzunak" azaldu zituen.

Ondoren, Gizonduz Ekimenarekiko tailer paraleloak egin ziren Ander Bergararen kargura. Bera Gizonduz Ekimenaren koordinatzailea da. "Gizonezkoen indarkeriak" izenburupean bi egin ziren: Ritxar Bacete Gizonduzeko idazkaritza teknikoaren "Maskulinitasunak eta arriskuak" eta Josetxu Riviere Gizonduzeko idazkaritza teknikoaren "Gizonezkoak, maitasuna eta berdintasun-harremanak".

Arratsaldean parte hartzeko erakusketa egin zen "Santurtzitik proposamen eta ekintzekin".

José Angel Lozoya maskulinitasunetan adituak eta Sevillako "Foro de Hombres por la Igualdad" erakundeko kideak eta María Jesús Izquierdo Bartelonako unibertsitateko ekonomian doktoreak eta soziologian irakasleak honakoari buruz hitz egin zuten: "Gizonezkoak berdintasunaren erronkaren aurrean". Gizonduzeko idazkaritza teknikoak Ritxar Bacete moderatzailea izan zen eta bikaintasunez itxi zen asteburua.

Aintzane Cordon Ibinaga Gizarte Ekintza eta Berdintasunaren Arloko zinegotziak jardunaldiak amaitutzat jo zituen eta beratarutako guztiei zorioren eman zizkien egindako lanarengatik. Hezkuntzaren munduan, osasunaren munduan eta enpresa-ehunarekin lan egiten jarraitzearen beharra planteatu zuen.

Erdizka Laetaan taldeak eta Mendi Alde dantza-taldeak itxi zuten Gernikako plazan kultur ikuskizunarekin.

Jardunaldi guztietan zehar Kresala aretoko hallean erakusketa bat egon zen Urtxintza eskolak aurkeztutako material didaktikoekin.

Landutako gaiak eta izan daitezkeen iruzkinak edota ekarpenak hurrengo blogean jasotzen ari dira: <http://santurtziberdingunea.wordpress.com/>



BERDINTASUNAREN ALDEKO FOROA 2010 maiatzak 10-30. Emakundek antolatutakoa.

Emakundek antolatutako Berdintasunaren aldeko 2010eko Eztabaida-gunearen barruan joan den maiatzaren 13an Mirra elkarteak Tailer Elkarrengileak jarri zuen abian eta gai nagusia honakoa izan zen:

“Erantzukizun Bateratuaren Gizarte Antolaketari buruzko aldeko eta kontrako alderdiak eta ahazten ditugun beste zenbait alderdi”.
Tailerrean Rosana Agudok eta Adela Innerarityk lehenengo ikuspegia eman zuten gizartearen, antolaketaren eta gure barruan dagoen errealitateari buruz produkzio- eta ugaltze-lanaren balorazioari dagokionez.

Jarduteko modu desberdinen zokoak aztertuz, Adelak hausnarketa sakona egin zuen bateratzeari buruz eta gizartearen ikuspegitik erantzukizun bateratua duten antolaketari jardutera mugiarazten dieneri buruz.

Pertsona bakoitzak hausnarketa egin behar du bere eredu mentala eratzeko erantzukizun bateratuaren kontzeptuan oinarritutako gizaritoki espero duenari dagokionez. Ikuspuntua eta helburuak argitu ez badira, bere ingurunearekin harremanetan jartzen denean eta beste pertsonekin elkarrekintzan diharduenean, gizartearen nagusi diren eredu eta jarreraren eragin handia izango du. Egoera horretan zaila izango da egiazko bateratzea ikusgai bihurtzea pertsona bizi eta garatzen den eremuetan.

Erantzukizun bateratuaren eredu mentala zabaldu eta hedatzen denean, arrazoiak ezagutzen hasten dira eta pertsonen eta gizartearen biziaren alderdi askotan eta bere osotasunean gizarte eta familiaren erantzukizun eta aginte desorekatuak sortzen duen arazoa balora daiteke. Hala, egiazko aldaketa sakonak eta iraunkorrek sortuko dituen masa kritikora irits daiteke.

Egungo errealitateari erreparatu, gizarteak oso balorazio partzialak mantentzen ditu pertsonen gizaritoki egindako ekarpenei buruz egindako jardueraren arabera. Balorazio horretan talde batzuk baztertuak edo gutxietsiak gelditzen dira. Balorazio alderdikoia elkarte ugari jaiotzearen sorburua da. Horietan dauden pertsonen borondatez ematen dute beren denbora, gizarteak justizia, berdintasun eta etika gehiago izan dezan. Paradoxaz, egiten duten lanarengatik, bina egungo ereduarekin bat, pertsona horiei “ez-aktibotzat” jotzen zaie beren sailkapenetan.

Hausnarketa horretatik abiatuta, Adelak sortutako talde guztiei planteatu zien tailerrean honako gaiak:

- 1.- “Produkzio- eta ugalketa-lana berdinduz baloratuko balitz, zer eremutan eragingo luke balorazio-aldaketak eta zergatik?”
- 2.- “Nola antolatuko litzateke gizarteak?”
- 3.- “Emakumezkoen elkarteak ugalketa-lanaren balorazioa bultzatzen ari al dira? Zer modutan?”.

Planteatutako ustezko horietan ondorioek diote agintean oinarritutako desberdintasuna puskatuko litzatekeela gizartearen eta balorearen eta aberastasunaren kontzeptuak aldatuko liratekeela. Egoera ideal horretan elkarte gehiago leudeke eta bateratzearen eta erantzukizun bateratuaren kontzeptua barneratua izanda, emakumezkoek eta gizonezkoek batera lan egingo lukete norabide berdinean.

Tailerra erronka batekin amaitu genuen: estatusa eta zereginak banatzeko orduan berdintasunaren arloan gure helburuarekin koherentzia bizi eta adieraztea.

Deustu-San Ignacioko Modulu Psikosozialaren Emakumezkoaren Zerbitzuak joan den maiatzaren 12an konferentzia bat antolatu zuen eta horretan Marcela Lagarde antropologo eta feministak

“Erantzukizun Bateratua duen Gizarte Antolaketa berrirako Proposamenak”

azaldu zituen.

Idazleak aipatutakoaren arabera, XX. mendean aldaketa handia izan da emakumezkoaren biziaren, baina, aldi berean, aldaketa desberdinak egin arren, bai kulturaren, bai nekazaritzaren, adibidez, beste eremuetan, hala nola partaidetza politikoan, ez da lortu eta panorama zertxobait konplexuagoa da.

Aurreko mendea generoaren sinkretismoko bezala deskribatzen du, tradizioa eta aldaketa lotzen baititu edo, beste hitzetan esanda, gizarteak kulturaren ikuspegitik markatutako bizi-mugarriak eta emakume askori beren bizia aldatzeko erabakiak hartzea behartutako bizi-trabak. Hori izan zen lehenengo emakumezko abokatuak, ingeniariak eta unibertsitarioren kasua. Baina, erabakiak hartzen direnean, emakumezkoek erabakitzeak aukerak dituzte, orain aukerak badaudelako.

Horretan oinarrituta, mundu modernoko emakume guztiak sinkretikoak gara: emakumezkoen subjektibotasunean dauden konfigurazio sakonak (zereginak, bizimoduak, etab.) nortasunak, adierazteko modua, denboraren erabilera eta bizi garen mundua markatzen dituzten aldaketekin bizikidetzen dira. Emakumezkoak bezala, gizonezkoak sinkretikoak dira, baina neurri desberdinean, emakumezkoek baino askoz gutxiago aldatu baitute eta genero-kontserbadurismoa handiagoa baita. Gizonezko askorentzat ez da bizi-beharrak bizimoduz aldatzea eta, beraz, ez dira nahasten gatazkarik ez sortzeko.

Horrek munduaren nahastea sortzen du eta genero-desberdintasuna ezkatatu egiten da, baztertzearren kontra borrokatu arren, ez baitu esanahi berdintasuna lortzen denik. Lagardek aipatutakoaren arabera, nahastea munduan ezarri joan da “berdintasunaren estalki” bezala eta erantzukizun bateraturantz egungo ikuspuntuak emakumearentzako aldaketa hautesmateko zailtasuna sortzen du. Emakumezkoek ez lukete itxaron behar gizonezkoak sentibiltzatzea, beste garaitan egin zen bezala egin beharko lukete. Garai haietan mugimendu feministek eta emakumezkoen mugimenduek mundua eta gobernuak aldatzera behartzen zituzten, genero-ikuspuntutik neurriak hartzeko orduan.

Emakumezkoek “txipa” aldatu behar dute, beraiantzat zaintzek, adibidez, maitasunarekin zerikusia baitute eta zaintza jakinen bidez maitasuna emateari uzten zaionean eta zeregin horietan besteak nahasten dituztenean, egitura oso sakonak aldatzen dira. “Beraz, dirudenez, munduari aurpegia aldatzen ari zaio, baina prozesua ez da azkarra eta egunerokoan ikustea kosta egiten da, aurrerapenez hitz egiteko aukera izan arren. Orain ez da nahikoa bakarrik hezkuntzarekin, aldaketak behar dira eta ez da nahikoa paperak aldatzearekin”.

www.emakunde.euskadi.net

www.vidasolidaria.com

BIZKAIKO EMAKUMEEN ELKARTEEN VIII. AZOKA.

Azoka maiatzaren 5ean, 6an eta 7an egin da eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu du.



Joan den maiatzaren 5ean Bizkaiko Emakumeen Elkarte VIII. Azokaren inaugurazioa izan zen eta Josu Bergararen hitzek eman zioten hasiera ekitaldiari –Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako zuzendaria-. Aipatu jaunak aurten zaintzaren ildoan kokatzen den, hain zuzen, “Zaindu, nork bere burua zaindu eta zaintzen premian egon” izenburupean, berrelkartzeko guneatzat jo du aipatu azokaren balioa. Gai honek emakumeentzat garrantzi berezia dauka, zehazki, osasunaren, lan merkatuan sartzeko esparruan eta horien bizi kalitatean, lehen eman eta onartzen zen eginkizuna edo rola baitzen. Hori dela eta, aipatu gaia ikuspegi poliedrikoarekin aurkeztu nahi izan da, alderdi eta ikuspegi guztiak islatu ahal izateko.

Bizkaiko diputatu nagusiak, Jose Luis Bilbao jaunak, eman zion amaiera inaugurazioari eta erakustokia eta hausnarketa egiteko balioko zuelakoan zegoela esan zuen, hain zuzen, talde horrek euren arazoak eta kezak izaera ludikoko 20 ekintza baino gehiagoren bidez adieraz diezazkigun: biltzarrak, hitzaldiak, dokumentalen emanaldiak, tailerrak, dantza edo korua,

besteak beste. Horrez gain, bularretako minbizia duten Menorcako eragindako emakumeen Alba Elkarte ere aipatu zuen. Elkarte horrek “Minbizia daukagu” argazki erakusketa laga du. Bertan, bost emakumek beren gaixotasuna zer den erakutsi digute,

Hiru egun horietan, azokak gai asko jorratu zituen, hala nola: gaixotasun terminalak, menopausia, fibromialgia, jaiotzagatiko eta adopzioagatiko lan baimenak, autodefentsa, etab. Gai horiek lantzeko, zenbait adituren parte hartzea izan zen, bestak beste: Maribel Teigell, Madrilgo Severo Ochoa Ospitalekoa; María Jesús Balbás, ginekologoa eta UPV-EHUko irakaslea; eta María Pazos Morán ikertzailea.



Emakumeen hogeita hamar elkartek parte hartu dute ekitaldi honetan, hain zuzen, Berdintasunerako Bizkaiko Foroan lan egiten duten 86 elkarteren izenean –horietan 30.000 emakumek baino gehiagok parte hartzen dute-. Bizkaiko Foru Aldundiak sortu duen foroa, azoka honetan, berdintasunezko etorkizunaren alde urte guztian zehar egindako lanaren adierazle da eta, kasu honetan, nahitaezko eta alderdi ahulez beteriko gai bat, alegia, zaintza, jarri du agerian.

ausardia handiarekin eta naturaltasun osoz. Lehenengo aldia da erakusketa jatorrizko lekutik ateratzen dela.



HOMOFOBIA REN KONTRAKO EGUNA: BIZKAIA SEXU – ANIZTASUNAREN ALDE.

Maiatzak 17. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutakoa.

ALDUNDIAK HOMOFOBIA REN KONTRAKO EGUNA ERREBINDIKATZEKO KANPAINA JARRI DU ABIAN.

“Bizkaia sexu-aniztasunaren alde, Bizkaia homofobiaren kontra” da leloaren kanpaina. Maiatzaren 17 eta 19an egin zen eta Bilboko Areatza Pasealekuan karpa instalatu zen. Sinadurak jasotzeko epea ekainaren 28ra arte zabaldu da. Ekimena Bizkaiko Foru Aldundiarena izan zen eta LGTB plataforma eratzten duten erakunde desberdinekin batera kalera irten nahi izan zuen astelehenean, maiatzaren 17an, homofobiaren kontrako munduko eguna errebindikatu eta ospatzera.

Euskadin lehenengo aldiz jarri da abian halako ekimena, sexu-diskriminazio mota horren kontra borrokatu behar baita. Izan ere, oraindik gure gizartean ematen da.

Beste jardueren artean, manifestu ofizial bat egin da eta hori sinadurak jasotzeko erabiliko da. Jose Luis Bilbao Bizkaiko Diputatu Nagusiaren hitzetan “argi gelditu behar du Bizkaia homofobiaren kontra dagoela”. Dokumentu berdina, ondoren, BFAren Gobernu Kontseiluan landu zen onartu eta horrekin printzipioen aitoren horrek merezi duen indar ofiziala eta instituzionala izateko.

Instalatutako karpan bideo-erreportaje bat erakutsi zen taldeen eta herritarren iritzia testigantzekin; era berean, “Homofobiaren aurpegiak” erakusketaz gozatu ahal izan zen. Hori EHGMK laga zuen.

Jarduera amaitu zenean, itxaropen bat gelditu zen: ekimena edozein indarkeria-edo diskriminazio-mota pairatu duen edo pairatzen ari den pertsonarentzat testigantza eta omenaldia izateko.

Ekimenaren alde manifestu osoa lortu eta sinatzeko:

- <http://eskuar.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO1/Noticias/Pdf/manifiesto.pdf>
 - <http://eskuar.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO1/Noticias/Pdf/firmas.pdf>
- Sinadurak Berdintasun eta Hiritarren Eskubideen Zuzendaritzara bidera daitezke. Mazarredo zumarkalea 63, 3. ezk. 48009 Bilbo**



Nazioarteko Kongresua: “Aniztasunaren isla politikoa: Herri indigenen autonomia eta parte-hartze politikoa Latinoamerikan”.

Maiatzak 13 eta 14. Deustuko Unibertsitateak antolatutakoa.

Maiatzaren 13an eta 14an Nazioarteko Kongresu hau egin zen: “Aniztasunaren isla politikoa. Herri indigenen autonomia eta parte-hartze politikoa Latinoamerikan”.

Kongresua Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak antolatu zuen, Latinoamerikako

herri indigenentzako Giza Eskubideetako prestakuntza-programaren hamargarren urteurrena zela eta. Deustuko Unibertsitateak eta Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Mandatari Gorenek ere parte hartzen duten programa hori duela 10 urtetik hona egiten da Bilbon, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Zuzendaritzari esker.

Topaketan herrialde askotako 100 pertsona baino gehiago elkartu ziren, ekitaldira gonbidatutako aditu ospetsuen ekarpenen jakin minnez.

Indigenek aldarrikatzen dituzten autogobernuari, parte-hartze politikoari, lege- eta hizkuntza-aniztasunari eta autonomia-modu ezberdinei buruzko azterlan eta eskarmentuetatik ateratako datuak jorratu eta gero amaitu zen kongresua, ondorioek ideia nagusi bat nabarmentzen dutelarik: herri indigenak, mendebaldeko herrialde garatuak ez bezala, izugarri errotuta daude lurrrera, gizarte- zein kultura-ikuspegietatik, eta horixe da nortasun indigenaren edozein eraikuntzaren funtsezko elementua. Beraz, behinenekoa da herri horiei orain arte ukatu zaizkien parte-hartzea eta autonomia babestea, horrela soilik lortuko baitute nortasunari eustea eta euren eskubideak aldezteko, estatu mailan ez ezik nazioaz harantzago ere, lurraldea berreskuratu, bizi-baldintzak hobetu eta euren destinoa eraikiko badituzte.

Ondorio horri loturik, Kolonbiako Antioquiako Unibertsitateko Hezkuntza-Fakultateko Hezkuntza Indigenako Programaren koordinatzaile eta ONICEko presidente ohiak hauxe esan zuen: “Historia, kultura eta eskubide bereziak aitor dakizkigun aldarrikatzen duen baina bakean eta justuago biziko den gizartearen aldeko borroka politikotik aldentzen ez den mugimendu indigena gara”.



Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzarmenak eta dirulaguntzak 7 erakundeekin berdintasunaren, lankidetzaren eta kultur artekotasunaren alde lan egiteko.

gehi 9 milioi euro lankidetzara, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako proiektuetarako; gehi kultur artekotasuneko diru-laguntzak.

Herritarren eskubideen berdintasun, kultur artekotasun eta bereizkeriarik ezaren jardueretarako diru-laguntzak

Hiritarrek dituzten eskubideak betetzen direla begiratzeaz arduratzen diren erakundeetan elkartegintza sendotzen laguntzea 670.000 euroko laguntza ekonomikoaren helburua da.

Hiritarren eskubideen defentsa lagundu, kultur artekotasuna urgatzeko, bazterketaren aurka borrokatu, lankidetzaren sentsibilizazioa, garapenerako hezkuntza bultzatzeko xedez, eta berdintasun, lankidetzaren eta kultur arteko kezken aldeko lanean aritzen diren elkarteekin hitzarmenak sinatuz, dekretuaren bidez diruz lagun daitezkeen ekintzen kategoriazioa, hauekako bakoitzerako aurrekontuan jasotako zenbatekoa eta, egonez

gero, erakunde onuradunen zerrenda jendaurrean azaltzen dira.

Iragan martxoaren 18an eskabideak aurkezteko epea bukatu zen jarraian azaldutako kategorietan diru-laguntza eskatzeko interesa duten erakundeek dagokienez:

EKIMENAK	ZENBATEKOA
Etorkinen elkarten antolaketa-egitura indartzea mantentzeko bere gastuak finantzatzeko eta inbertsioen bitartez.	245.000 euro
Kultur artekotasun eta hiritartasun inklusiboaren arloan sentsibilizatzeko jarduerak, etorkinen elkarteek edo hauek laguntzen dituzten erakundeek inplementatuta, barne hartzen dituzten programak egitea.	325.000 euro
Sexu-orientazioko arrazoiengatik bereizkeriaren aurkako eta Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen (LGTB) kolektiboaren eskubideen aldeko elkarteek inplementatutako sentsibilizatzeko jardueren programak egitea	100.000 euro

HELBURUAK

Hiritarrek dituzten eskubideak betetzen direla begiratzeaz arduratzen diren erakundeetan elkartegintza sendotzen laguntzea 670.000 euroko laguntza ekonomikoaren helburua da.

Bizkaiko Foru Aldundiak guztira 9.180784 euro erabiliz finantzatu ditu irabazteko asmorik gabeko erakundeek, lankidetzaren, garapenera edo laguntza humanitario eta larrialdiko egoeretako mobilizazioan espezializatuta daudenen, abiarazitako programak.

Lankidetzako proiektuak generoko ikuspegia integratzeko diru-laguntzak ematea araupetzen duen dekretuari argi berdea ematen zaio. Honen arabera 180.000 euro erabakitzen dira, laguntza teknikoak kontratatzerazuzenduta.

Lankidetzako proiektuak generoko ikuspegia integratzeko diru-laguntzak ematea araupetzen duen dekretuari argi berdea ematen zaio. Honen arabera 180.000 euro erabakitzen dira, laguntza teknikoak kontratatzerazuzenduta.

EKIMENAK

Bizkaiko Foru Aldundiak guztira 9.180784 euro erabiliz finantzatzeko irabazteko asmorik gabeko erakundeek, lankidetzak, garapen edo laguntza humanitario eta larrialdiko egoeretak mobilizazioan espezializatuta daudenean, abiarazitako programak.

Horrela, urte anitzeko garapenerako lankidetzako jardutekin batera, eta hauetarako 2010. urteko aurrekontuan, gehienez ere, 600.000 euroko partida bat erreserbatzen da eta beste 600.000 euro gehiago

2010. urtetik 2013. urtera bitartean hitzartzen diren aurrekontuen urte anitzeko kreditutan (600.000 dira 2011. urtean, 600.000 2012. urtean eta 600.000 2013. urtean), jarduketako modalitate guztiatarako taulan jasotako kantitateak aurreikusita daude:

Diru-laguntzak lankidetzak, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako proiektuetarako

tuak izateko, betiere laguntza teknikoak kontratatzerazuzentzen badira:

- **atorrizko herrialdeetan edo Bizkaian lankidetzak, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako proiektuen bidez: 60.000 euro;**

EKIMENAK	APLIKAZIOA	ZENBATEKOA
Garapen sozial eta ekonomikorako lankidetzak irabazteko asmorik gabeko erakundeekin bitartez	Txirotutako herrialdeak	6.699,922 euro
Irabazteko asmorik gabeko erakundeekin egin dezaketen sentsibilizazioa edo harapenerako hezkuntza	Bizkaia	1.078,862 euro
Ekintza puntualak	Txirotutako herrialdeak	110.000 euro
	Bizkaia	70.000 euro
Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa		324.000 euro
Hitzarmenak irabazteko asmorik gabeko erakundeekin	Bizkaia	298.000 euro

Bestaldek, lankidetzako proiektuetan generoko ikuspegia integratzeko diru-laguntzak ematea araupetzen duen dekretuari argi berdea ematen zaio. Honen arabera, 180.000 euro erabakitzen dira bi baldintzarekin bat etorritik banatu

- **jatorrizko herrialdeetan, erakundeekin interakzioan aritzen diren tokiko administrazioetan antolaketako estioa, berdintasunaren alde, eraldatzea ahalbidetzeko asmoz: 120.000 euro.**

Lankidetzako hitzarmenak zazpi elkarterekin berdintasun, lankidetzak eta kultur artekotasunaren alde lan egiteko

Bizkaiko Foru Aldundiak erakundeekin lankidetzako zazpi hitzarmen sinatu ditu, bere proiektuak eta ekimenak funtzionamenduan jarri, berdintasun, lankidetzak eta kultur artekotasunaren aldeko apustu komuna gauzatzeko errazteko.

Gay eta Lesbianen Arretarako Zentroa, Aldarte; Nazioarteko Garapen eta Lankidetzari buruzko Azterlan Erakundea, Hegoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Mundua Garatzeko Gobernu Kanpoko Erakunde Koordinakundea; UNESCO Etxea; Etorrinak Laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundea, Harresiak Apurtuz.; Iniziativa Gitana Elkartea; eta Kale Dor Kayiko Elkartea erakunde eta elkarte onuradunak dira.

Aldarte zentroari laguntza ekonomikoa eman zaio arreta, hezkuntza, sentsibilizazioko...baliabideak eskuratzeko xedez sexu-aniztasuna egotetik datorren diskriminazioa konpontzen laguntzeko. **Hegoa** erakundeari dagokionez, berriz, diru-laguntza foru erakundearen lankidetzako programaren funtzionamenduan eraginkortasuna hobetzera zuzenduta dago, lankidetzako ikerketa eta prestakuntza, garapenerako buruzko proiektuen kudeaketa, indarreko lankidetzak-politiken inguruko eztabaida-foroekin...lotutako jarduketekin bitartez. Lotutako GKEekin koordinazioa kudeatzeko helburuz garapenerako lankidetzaren lanari eraginkortasun handiagoa eman, gogoeta egiteko plataforma bat

eratu, euskal gizartearen hegoaldeko herrialdeen baldintzei buruzko kontzientizazioa sustatzeko eta arlo honetan GGKEen beraien eta foru erakundeekin emaitzak zabaltzeko helburuz, **GGKEen Koordinakundeekin** hitzarmen egokia sinatu da. **UNESCO** Etxeak hitzarmena baliatzen du "Kooperatu Zentroa. Nazio Batuek eta Lankidetzak" deritzonaren kudeaketa optimizatzeko. Espazio honetan informazioa, orientazioa eta sentsibilizazioa eskaintzen dituzte Nazio Batuen Sistema eta nazioarteko lankidetzaren gainean. Aldundiaren lankidetzak, immigrazio eta kultur artekotasuneko proiektuak bultzatzea, Koordinakundea osatzen duten 44 elkarten lana hobetzea eta tolerantzia eta hiritarren arteko bizikidetzak sustatzea **Harresiak Apurtuz** elkarteak erakunde onuradun gisa egiteko konpromisoa hartzen duen zereginak dira. Beste alde

batetik, **Iniziativa Gitana Elkartea**, hitzarmenari eskerrak, berdintasun eta generoko politikan elkarlanean aritzeaz gainera, foru erakundeekin aholkularitza eskaintzen dio ijitoen kolektiboak aztertze eta aipatutako komunitateak zerbitzu publikoetara jotzeko orduan egon litezkeen oztopoak gainditzeko. **Kale Dor Kayiko elkartea**, berriz, herritar ijitoek kultur artekotasun, gazteria, aisia eta kultur sustapenera dagokienez egiten dituzten jarduerak bultzatzen ditu, hauek areagotuz.

Aurrekontuko partida, guztira 450.000 euro barne hartzen dituena, hurrengo kontzeptu hauetan banatuta gelditzen da:

ERAKUNDEAK	ZENBATEKOA
Aldarte	40.000 euro
Hegoa.	105.000 euro
GGKEen koordinakundea	105.000 euro
UNESCO Etxea	87.000 euro
Harresiak Apurtuz	54.000 euro
Iniziativa Gitana elkartea	80.000 euro
Kale Dor Kayiko	50.000 euro

ELKARRIZKETA MARIA PAZOS

Foru Aldundiak antolatuta, Bizkaiko Emakumezkoen Elkarte VIII. Feria izan zela-eta, María Pazos gure artean izan genuen atsegin handiz. "Plataforma por Permisos Iguales e Intransferibles de Nacimiento y Adopción" erakundearen izenean Bilbora hurbildu zen bere errebindikazioez partaide egiteko. Halaber, egoera horrek emakumezkoen lan-diskriminazioan nola eragiten duen aditzera eman zuen. Azkenik, zereginen banaketa desberdina eta lanez kanpokoekin erantzukizun desberdina nabarmendu zituen.



1.- María, noiz eta zergatik eratu zen "Plataforma por Permisos Iguales e Intransferibles de nacimiento y adopción" erakundea?

- 2005. urtean, oraindik gaiari buruz ez zegoenean ezer, aitasun-baimenarengatik lau aste eskatu genituen eta berdintasunari buruzko legearekin 13 egun onartu ziren, gehi enpresaren kargura zeuden beste biak eta aurrerapausoa eman genuela iruditu zitzaigun, baina ez zen nahikoa. Egiaz eskatu behar zena honakoa zen: baimenak berdinak eta besterenezinak izatea eta errebindikazio horretan dabil plataforma 2008az gero. Ildo horri jarraiki, nabarmena da maila guztietan erantzukizun bateratuari dagokionez.

2.- Lan-berrikuntza berriari dagokionez, zer iritzi duzu amatasun-baimena 18 astera eta aitasunarena zabaltzeari buruz 2011tik aurrera?

- Gure ustez 2011. urtean lau aste emakumezkoak duen baimenaren bostena dela. Gaur egun Espainiako gizarteak erabateko berdintasunaren aldeko apustua egiten du eta gizonezkoek emakumezkoen eskubide berdinak izan behar dituzte. Emakumezkoek zabaltzeaz ari garenean, dirudenez, "geroz eta gehiago hobe", baina egiaz hori boomerang-efektua da eta emakumezkoaren kontra doa, erraz ordezkari daitezkeen lanpostuak betetzen baitituzte. Hala, kontratatu eta sustatzeko orduan, emakumezkoak baztertuak daude.

3.- Aitasunaren baimena aukerakoa

denez, zure ustez emakumezkoek adin txikikoekin ardura jarraitzen izango al dute edo berrikuntzarekin gizartearen jarrera eta pentsamendua aldatuko dela esango al zenuke?

- PIINA erakundearen bi baimenak berdin-berdinak izatea nahi dugu. Estatistikoki, amak ez dio baimena aitari besterentzen. Amaren derrigorrezko sei asteak beharrezkoak dira errekuuperatzeko, baina gainerako baimena, nahiz eta lagatzeko aukera izan, normalean ez du egiten ildo horri eutsiz gizartearen egiten duen presioarengatik.

Eskatzen duguna hurrengoa da: baimenak ezin besterentzea eta aitak 16 asteak hartzeko aukera izatea. Halaber, derrigorrezko 6 asteak izan behar ditu, baita borondatezko gainerako asteak ere, baina modu besterenezinean, amak duen bezala.

4.- Nolako da egoera Europako gainerako herrialdeetan?

- Suedia oso aurreratua dago, baina aitak baimena besteren dezakeenez, normalean amak gozaten du eta ez aitak, gizarte-araua nagusitzen delako eta, azkenean, emakumezkoarentzat 12 hilabete izaten dira.

Europako Iparraldeko herrialdeetako eredu honez gain, gai horretan herrialde aurreratua dugu; hori Islandia da. 3 hilabete besterenezin daude amarentzat, hiru hilabete besterenezin aitarentzat eta hiru hilabete bate edo bestearentzat.

Ildo horri jarraiki, hauteman da baimena aitak ez badu hartzen galdu egiten dela, amak ezin baitu horretaz gozatu

besterenezina delako. Orduan, aitak galdu baino lehen, beti gozatu egiten du. Horregatik, Islandiako eredu hori oso interesgarria da.

Hala, aitak egiaz emakumezkoaren berdina izan nahi badu, ez du inorekin negoziatu behar eta amak bere bikoteak gozatzeko nahi badu, gizarteak ez du presionatzen.

5.- Duela gutxi amaren eguna izan da eta plataformak honako leloa aurkeztu du: "Betiko opariarekiko hautabidea dago! Oparitu berdintasuneko etorkizuna... eta utzi alde batera plantxak". Zuen iritziz desberdintasun horiek ematen al dira kulturaren eremuan ere? Edo, bestela, gizarteak antzinako rola gainditu al ditu?

Diferentziak jaiotzetik transmititzen dira, baina erakunde-esparrua oso erabakigarria da. Hezkuntza-politika eta gizarte-segurtasunaren politika zehazten du. Hor dugu berriz ere Islandiaren adibidea. Aitek ez dute aitasunaren baimenik hartzen, aita txar bezala ikusten dira. Esan daiteke egoera kulturala dela, baina berdintasuneko aitak ezin du izan, erakundeak ez baitio uzten. Beraz, ezin diegu errua gizonezkoek bota. Baliokidetasun egoerak lan-oztopoa kentzen dio emakumezkoari eta rola ezartzeak garrantzia hartzen du. Horiek ikusgai bihurtzen dira bikotean, hain zuzen ere, lehenengo umea jaiotzen denean.

Eta, hirugarrenez, berdintasunaren eskolarik onena honakoa da: jaioberriak bere gurasoei ikustea nola berdin zaintzen duten; nolahi ere, ez da ama zaintzen duena eta aita lanera doana.

5.- Azkenik, zer ekimen dituzue epe laburrean?

Une honetan kanpaina bat egiten ari gara eta sinadurak lortu nahi ditugu Europako Parlamentuari gai horri buruzko arteztaraua egiteko.

Espainian baimenaren berrikuntza-legea lortu nahi dugu honako baldintzekin: baimenak berdinak, besterenezinak eta %100 ordainduak izatea bi kasuetan. Europako berdina planteatzen dugu Europako Parlamentuak Arteztaraua egiteko.

Halaber, Europako jardunaldia egin nahi dugu nazioarteko plataformaren kide diren beste herrialdeetako pertsonen beren esperientziak jakinarazteko.

Atxikitzeko web orria:
www.igualeseintransferibles.org

INTERED weba: ELKARTRUEKA ETA ELKARTASUNA



Kulturak gerturatzeko urtean gaudenez, Inter red elkarteak sustatutako kanpainaren harira, 2006 eta 2007ko elkartrukearen eta elkartasunaren inguruan, antolatutako "Garapenerako Berdintasuna: Emakumeak aurrera eginez gero, munduak ere egiten du aurrera" jaso gura izan dugu. Ekimenean neska-mutil, gazte eta helduen artean emakumeek munduan pairatzen dituzten desberdintasun ugariaren aurrean elkartasunez eta generoen parekotasunean aurrera egin behararen aldeko jarrera sustatzeko sortu zen. Munduan parekotasunik ezaren mapa marrazten duten desberdintasunak bistaratu nahi dira, baita emakumeek garapenari egiten dizkieten ekarpenak ere, hegoaldeko emakumeek euren lurraldeetan bideratzen dituzten ekimenei eta egiten duten lanari zein emakume horiek Espainian egiten ari diren ekarpenei dagokienez. Hau da, publikoak/pribatua banaketa gaudituko duten herritar berrien eraikuntzarako emaria, emakumeak sektore zaugarri eta pasibo gisa, edo baliabide erabilgarri gisa soilik ez, aldaketaren eragile eginkor gisa baizik ikusiko ez direnekoa. Kanpaina horri buruzko zehaztasun gehiago nahi baduzu, sartu web orri honetara:

<http://www.interred.org/igualdaddegenero/presentacion/index.htm>

WEBA: BERDINTASUNEAN HEZIZ



Eduki ugari orrialde honetan hezikidetzari buruzko azkeneko albisteak, hezkuntza-sisteman eragiten duten alderdiak, genero-ikuspegitik egindako literatura-kritikak eta berdintasunaren aldeko borrokaren inguruan egindako hainbat ekitaldiren berri jasotzen da. Gai

ZIBERINTERES@ EZAZU//

horien inguruan egiten diren ekimenak ezagutzeko toki ezin hobea da eta, gainera, tresna eraginkorra da hainbat ikasgai, berbarako, artea, historia edo teknologia berdintasunaren ikuspegitik emateko hezkidetzako baliabideak bilatu nahi dituztenentzat. Animatu eta sartu orrialdera eta ikusiko duzu zenbat gauza eskaintzen diren bertan:

<http://www.educandoenigualdad.com/spip.php?page=site>



Film laburra: "Aitak" 2008


Aitzol Aramaio zuzenduta.

Joan den maiatzaren 5ean, Elkarteen VIII Azokan, "Aitak" film laburra ikusteko aukera izan zen. Filma Emakundek bultzatu du, "Berdintasunak gizonago egiten zaitu" Gizonduz ekimenaren bidez.

Dokumentalean hainbat gizon ikusten dira aita gisa dituzten esperientziak kontatzen. Zer pentsatzen duten azaltzen duten eta bizipen horien inguruan zer sentitzen duten, beldurra, zalantza zein bozkarioa, adierazten duten pertsonen kontakizunak dira. Era berean, gogoeta egiten dute guraso eta lagunekin izan zuten harremanari buruz. Aitzol Aramaio-ren esanetan: "Pelikulak erakusten du merezi duela berdintasunerantz joatea, gizon horiek aitatasunari buruz zer egiten duten eta zer sentitzen duten ikustean, garbi ulertzen baita zer galtzen duzun berdintasunaren alde jartzen ez bazara. Gizon horiek animatu dira urratsa egitera eta seme-alabak hazi eta hezten parte hartzera, kultura matxistik datozen joerak hautsiz eta berdintasunez jokatzeko saiatuz".

Ikusi film laburraren laburpenaren bideoa helbide honetan:

<http://www.youtube.com/watch?v=xm14uJl6cKM>



Susana Koskac zuzendutako "Vindicación" Dokumentala

Joan den apirilean VIII. Donostiako Zine eta Giza Eskubideen Jaialdia egin zen eta "Vindicación" Susana Koskacaren dokumental berria aurkeztu zen.

Filmarekin begirada atzera botako dugu, hain zuzen ere, 70. hamarkadan emakumezkoek lana egin edo kontu-korrontea irekitzeko senarraren baimena behar zutenera arte joango gara. Garai hartan antikonzeptiboak erabiltzea debekatuta zegoen. Hortik hasita, bidea egiten du gaurdaino eta egun mugimendu feministen errebindikazio batzuk gizartearen erabat integratuak daude.

Susana Koskac txandakatu egiten ditu 70. eta 80. hamarkadetan borroka feministan murgilduta zeuden emakumezkoekin elkarriketak, iragarkiak, prentsa-ebakinak eta beste garaiko osagaiak. Hala, gizartearen emakumezkoen egoerak izandako eboluzioa islatzen du. Halaber, gazteriari transmititu nahi dio "eskubide horiek lortu egin direla, beti ez direla existitu eta mantendu egin behar direla".

Emakumezkoen mendeari buruz dokumentala ikusteko eta bloga bisitatzeko gonbita luzatzen dizugu:

<http://vindicacion-koska.blogspot.com/>